A1571



Altza

# Ezberdintasunaren begia

**Larraitz Garmendia** (Tel.: 943-391267)



Inguru giroa, arrazakeria, kontsumoa... izango dira erakusketako gaiak.

Datorren astelehenetik, hilak 6, 16ra bitartean Altzako auzo etxean, "Milurteko amaierako desberdintasunak" izenburupeko erakusketa egongo da ikusgai. Mugarik Gabe izeneko Gobernuz Kanpoko Erakundeak antolatu du erakusketa. GKE horretako kideek gaur egungo bizimoduarekin loturiko hainbat arazo eta gai izago dituzte hizpide: ingurugiroa, arrazakeria, kontsumoa, emakumea...Guztira dozena bat panel handik eta 69 txikik osatzen dute erakusketa. Argazki eta collage bilduma polita egin dute antolatzaileek. Horrez gain, jorratzen diren gaiei buruzko informazioa bildu nahi izan dute, bisitarien artean banatzeko. Donostiako eskolek erakusketa gida batek lagunduta ikusteko aukera izango dute. Beraz, ikasleek arazoak gertutik ezagutu, azkertu, hausnartu eta ondorioak atera ahal izango dituzte. Aipatu beharra dago, erakusketa hau Antiguako Lugaritz kultur etxean egon dela bolada batean. Oraingoan, altzatarren txanda izango da. Mugarik Gabe GKE-k ekimen hau sentsibilizazio kanpaina zabalago batean kokatu du. Taldeak beste hainbat jarduera antolatu ditu, esaterako, hilaren 13tik 16ra egitekoak diren zine emanaldiak. Horrez gain, Mugarik Gabe-k esku liburu bat plazaratzeko asmoa du. Informazio gehiago nahi duenak 943-445977 hots egin dezake.

**Mugarik Gabe Gobernuz Kanpoko Erakundeak antolatu du erakusketa**

UZKUDUN
ERAIKITZE METALIKOAK eta ERA GUZTIETAKO MUNTAIAK
Errementeri dekorazioa · Arotzegi Metalikoa · Mantenimendua · Soldadura bereziak
Bº de la Florida, 142 HERNANI 20210
Tel. eta Fax: 943 331 040

PALMERA
Berezitasuna:
NARRASTIAK ETA PERTSIAR KATUAK
Tel.: (943) 290968
Karmengo Ama kalea 14
(Izkina Iruresoro plazarekin)

Kinkildegia MERTZERIA
• KORTSETERIA: DIM, CHANTELLE, SIMONE PERELE, SELMARK, LITTLE KISS
• PIJAMAK: MASANA, AMETLLER, NOCTURNO
• LENTZERIA: BALMORAL,VANIA
• GALTZERDIAK: DIM, SILCA, PLATINO
• BARRUKO ERROPA: AVET, PUNTO BLANCO, DIM, SET (GIZON ETA EMAKUMEENTZAT)
Tel.: 943 472328 • AMEZKETA PLAZA (AMARA BERRI)

Atsedenerako ekipoak
beds
Dendak
Oheak - Koltxoiak - Kanapeak
Somierrak - burukoak
Edredoi nordikoak - Azal nordikoak
Maindireak - Osagarriak
Ronda 6 GROS - Tel.: (943) 320358